

“Gobernuak aldatu egin behar lituzke energia merkatuaren arauak prezio egonkorragoak egon daitezen”



Jorge Morales

Energia arloko aditua

Energiaren merkatua gaizki antolatua dagoelako igo da hainbeste argindarraren prezioa Espainiako Estatuan. Argi dio Jorge Morales energia arloko adituak. Gobernuak lasai asko alda dezakeela dio, eta irtenbidea energia berriztagarrietan dagoela nabarmentzen du, nahiz eta irtenbide hori lehenbailehen gauzatzeko erabakia ere politikarien esku dagoen. Pobrezia energetikoaren aurka ere badihardu Moralesek Eneria Eredu Berri baten aldeko Plataforman. Erakunde horrek, Kataluniako Pobrezia Energetikoaren aurkako Aliantza-rekin batean, proposamen bat egin du Bonu Soziala esaten zaiona hobetzeko.

Zergatik igo da energiaren prezioa?

Egia da energia berriztagarri gutxiago sortu dela beste urte batzuetan baino, batez ere eolikoa eta hidraulikoa, arrazoi meteorologikoengatik, eta kontsumo handiagoa izan dela, hotz kolpearen ondorioz. Baina horrek ez du zurrizten prezioa hainbeste igo izana. Abenduan, berriztagarrien ekoizpena urtarrilekoa baino are txikiagoa izan da eta, hala ere, urtarrilean baino dezente merkeagoa izan da prezioa. Kontua da argindar merkatuko joko arauak gaizki diseinaturik daudela.

Zein dira arau horiek? Egunero, argindar zentralak bere energia eskaintzen dute hurrengo egunerako, eta eskariari erantzuteko egiten den eskaintzarik garestienak finkatzen du guztien prezioa. Merkatu marjinalista esaten zaiona da. Merkatu normal batean, lehia pixka batekin, lehiakideak azalduko liriteke eta jaitsi egingo lukete prezio hori. Espainiako Estatuko energia merkatuaren zati handi batean ez dago lehiarik edo konkurrentziarik. Nuklearrek, zeinak herrialdeko energiaren %20 sortzen

duzen, ez dute lehiakiderik, eta megawatta 70 euro kobratzen aritu dira orduko (MWh); iazko apirilean, aldiz, 24 euro kobratzen zuten.

Igotzen jarraituko al dute prezioek?

Ez dakigu, joko arau ezkutukoak dira. Edozein aldaketa txiki igo ditzakete edo hondoratu ere bai, iazko udaberrian gertatu zen bezala. Preziorik garestiena ezartzen dutenak, gasa eta ikatza, ez daude gure mende, petrolioaren kotizazioaren mende baizik. Baina petrolioak gora egiten badu, normalena da prezioak ere igozea.

Zer egin behar litzateke gehiago ez igotzeko?

Gobernuak aldatu egin behar lituzke joko arauak prezio egonkorragoak egon daitezen, beste herrialde batzuetan bezala. Frantzia eta Alemanian, adibidez, non energiaren handizkako merkatuko prezioak Espainiakoak baino are handiagoak diren, horrek kontsumitzailearen azken fakturan uzten duen eraginak ez du zerikusirik hemen gertatu denarekin.

Zer egin dezakegu herritarrek? Ahalik eta buruaskienak izan eta, adibidez, eguzki plaka bat jarri. Eta lau urtez behin botoa ematean, sistema egiaz alda dezakeenaren alde egin.

Baina legeak, praktikan, bideraezina egiten du energia autokontsumoa.

Ez nuke esango bideraezina, baina bai oso zaila. Horregatik ere eskatzen da legea aldatzea.

Eta bitartean zer egin dezakegu?

Ahalik eta tarifa onena kontratatatu, ez utzi eskaintzekin engaina gaitzaten eta ez xahutu energiari. Behin hori eginda, oso tarte txikia gelditzen da, merkatua esan bezala dagoelako.

Espainian zergatik ez da energia berriztagarri gehiago erabiltzen?

Ez dakit, zeren garbiagoak izateaz gain, gainerako energiak baino merkeagoak baitira, ikatza eta gasa baino gehiago eta, batez ere, nuklearra

baino. Aurrekaririk ez duen energia trantsizio batean sartuta gaude. Aldaketa horrek %100 berriztagarria egingo baitu gure sistema. Inork ez dezala zalantzarik eduki, kontua da zenbat denbora beharko den hori gertatzeko. Politikariek dute erantzukizuna trantsizio hori azkartzeko edo mantsotzeko.

Askio hitz egiten da argindarraren prezioaz, baina ez hainbeste gasarenaz, eta horrek ere gastu handia eragiten die kontsumitzaileei, batez ere hilabeterik hotzenetan.

Zergatik? Segur aski, ohituak gaudenez hidrokarburoen prezioak beste herrialde batzuetan ezar ditzaten, jendeak normaltzat hartzen du, eta argindarra, aldiz, hemen ekoizten dugu eta, hala ere, igo egiten da.

Pobrezia energetikoaren aurka ere aritzen zara. Zer egin behar litzateke hori saihesteko? Laguntza ofizial bakarra, Bonu Sozial Elektrikoa, %25eko deskontua dakarrena argindarraren fakturan, gaizki diseinaturik dago 2009an sortu zenetik; beste kontu bat da gero hori nork finantzatu behar duen, baina enpresa handi guztien eskaria da Estatuko Aurrekontu Orokorrek har dezatela bere gain.

Nola antolatu behar litzateke laguntza hori?

Ez luke izan behar argindarrarentzat bakarrik, zeren pobrezia energetikoak dakartzan arazorik gehienak neguan agertzen baitira eta jenderik gehienak gasezko berogailuak ditu. Hortaz, gasarentzat eta butanoarentzat ere izan behar luke gutxienez. Errenta mailak hartu behar liriteke kontuan eta %100eko hobaria eman diru sarrera gutxien duten familiei, horiek arazo bera izaten baitute 100 euro ordaintzeko edo 75. Horretan ari gara lanean gizarte erakundeak aspaldiko urteetan.